Eguraldia lagun, jendetsua izan da Tolosako Gabonetako Azoka Berezia

Berritasunez beteta iritsi da aurtengo Gabonetako Azoka Berezia, kokalekuak horren adibide; 23. Odolki Lehiaketan berriz, txapeldun berria izendatu da, Iñaki Zubeldia beasaindarra 5

tolosaldeko ataria

3. urtea. 414. zenbakia. • www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm • ASTEARTEA, 2015-12-22

«Oso pozik, pribilegiatuta sentitu naiz»

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala amaituta Oihana Iguaranen hitzak dira, seigarren postua eskuratuta; Beñat Gaztelumendik jantzi zuen txapela 4



Kantuan hasteko lehen postua egokitu zitzaion finalean Iguarani. ALBERTO ELOSEGI

EH Bildu eskualdeko lehen indarra, boto galera handiarekin

Espainiako Gorteetarako eta Senaturako hauteskundeetan parte hartzea %65koa izan da; Podemos hirugarren indar modura kokatu da, EAJren ondoren 2-3

Iban Ugartemendiaren lanak, bigarren postua

Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa jokatu zen igandean, Asteasun. Iban Ugartemendia (4.975 kilo) hernialdearrak bigarren postua lortu zuen Jokin Eizmendiren atzetik (7.200 kilo). Zitan Aimar Irigoien falta izan bazen ere, lesioa tarteko, Ugartemendiak ezin izan zuen gainditu iazko irabazlea. 6

Tolosaldea

Pastela geroz eta banatuagoa

Podemos eskualdeko hirugarren indar gisa kokatu da, EH Bildu eta EAJren atzetik

J. MIRANDA - A. IMAZ

Tolosako Paper Eskolan kokatutako bozkalekura jende ugari gerturatu zen igandean botoa ematera. JON MIRANDA

Espainiako Gorteetarako eta Senaturako hauteskundeak ospatu ziren igandean Tolosaldean. EH Bildu izan zen indarrik bozkatuena, baina duela lau urte Amaiurrek lortu zituenak baino 4.000 boto gutxiago lortuta. «Eskualdeak orokortasunetik ezberdina den errealitate bat erakutsi du», Eneko Maioz, Tolosaldeko EH Bilduko ordezkariaren arabera. Hala ere, autokritika egin du, «Espainiari begirako hauteskundeak izan dira eta aldaketak irabazi du nabarmen. Guk ez dugu irakurketa hori egiten jakin».

36.202 pertsonek zuten Tolosaldeko 28 herrietan Gorteetarako hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea eta %65 inguru gerturatu ziren bozkalekuetara botoa ematera. 2011ko hauteskundeekin alderatuta parte hartzea berdintsu mantendu da eskualdean, hautesle erroldan 400 pertsona gehiago zeudela kontuan hartuta.

Beraz, oraingo honetan, boto kopuru beretsua alderdi gehiagoren artean banatu da Tolosaldean. EH Bilduk botoetan izan duen galera bezainbestekoa ez, baina PSE-EEk eta PPk babes txikiagoa jaso dute Espainiako Kongresurako hauteskundeetan.

Bozen galera hori, neurri handi batean, Podemos-Ahal Duguren mesedetan joan da. 5.178 boto eskuratu baititu eskualdean. Aurtengo maiatzean ospatutako Foru hauteskundeetako emaitzak alderaketa egiteko oinarri hartuta, Podemosek hirukoiztu egin du orduan eskuratutako boto kopurua. Iñigo Cabieces, Tolosaldeko Ahal Duguko kidea da eta bere esanetan «txikitik handira egin du bidea gure alderdiak». Tolosaldean hirugarren indarra da eta Pablo Iglesiasen alderdiak Hegoaldean jokoan ziren 23 eserlekuetatik zazpi eskuratu ditu; alderdi bozkatuena izan da: «Egin den kale lana ikusi dute herritarrek; hori da emaitzek erakusten duten irakurketa posible bakarra», nabarmendu du Cabiecesek.

Herri gehienetan, EH Bildu

Podemos-Ahal Duguk izan duen gorakadaren erakusgarri da, Tolosaldeko herri batean baino gehiagotan bigarren indar bihurtu dela. Anoetan edota Ibarran gertatu da hori.

EH Bildu izan da indarrik bozkatuena eskualdeko 28 herrietatik 25etan. Albizturren, Alkizan eta Tolosan EAJ izan da boto kopuru altuena lortu duen alderdia.

Tolosan, duela lau urteko emaitzak hobetu ditu alderdi jeltzaleak, baina maiatzean lortutako ia 9.000 botoetatik urrun geratu da. Olatz Peon alkateak emaitzen lehen irakurketa egin nahi izan du: «Azpimarratzekoa da alderdi berriek izan duten babesa, baita Tolosan ere. EAJk %13ko igoera izan du duela lau urteko emaitzekin alderatuta». Pozik agertu da Peon emaitzekin eta Tolosakoetan arreta jarrita nabarmendu du, «2011an Amaiurrek eta PSE-EEk lortu zituen botoak batuz gero, gaur EH Bilduk, PSE-EEk eta Podemosek elkarrekin jaso dituztenen berdinak dira».

Eserleku banaketa

Gipuzkoan Espainiako Gorteetarako sei diputatu erabakitzen dira hauteskundeetan. EAJk bi ordezkari izango ditu Kongresuan -Joseba Agirretxea eta Estibalitz Alkorta-, duela lau urte baino bat gehiago eta EH Bilduk ordezkaritza, hirutik bakarrera jaitsiko du: Marian Beitialarrangoitia ariko da diputatu gisa eta Rafa Larreina Kongresutik kanpora geratuko da. Podemos-Ahal Dugu Gipuzkoan zerrendarik bozkatuena izan denez, bi diputatu izango ditu Gorteetan: Nagua Alba eta Fernando Iglesias. Alderdi sozialistak, bukatzeko, Odon Elorza bidaliko du ordezkari gisa Madrilera.

Estatuko emaitzei begiratuta, PP izan da alderdirik bozkatuena eta 123 eserleku eskuratu ditu. PSOE izan da bigarren indarra, 90 diputaturekin. Podemosek 69 ordezkari lortu ditu Gorteetan eta Ciudadanos taldeak, berriz, 40. Kataluniako alderdiek, ERCk eta DLk, 9 eta 8 diputatu lortu dituzte, hurrenez hurren.

Espainiako Gorteetarako hauteskundeen emaitzak herriz herri

B: BOTOAK

HERRIA	ERROLDA 2015	ERROLDA 2011	EH BILDU 2015 (B)	AMAIUR 2011 (B)	EAJ 2015 (B)	EAJ 2011 (B)	PODEMOS 2015 (B)	PSE-EE 2015 (B)	PSE-EE 2011 (B)	PP 2015 (B)	PP 2011 (B)	CIUDADANOS 2015 (B)	IU-LV EZKERRA 2015 (B)	IU-LV EZKERRA 2011 (B)	UPyD 2015 (B)	UPyD 2011 (B)	ABS. 2015 (%)	ABS. 2011 (%)
Abaltzisketa	244	249	70	99	54	55	9	2	5	1	3	0	0	0	0	0	42,98	32,93
Aduna	354	347	108	170	54	42	45	0	5	3	4	4	2	6	0	1	33,82	31,7
Albiztur	254	254	33	72	66	63	20	8	9	0	1	3	2	1	0	0	46,43	39,76
Alegia	1274	1341	342	552	234	198	131	34	58	27	52	12	10	11	0	3	35,69	33,63
Alkiza	265	277	58	112	64	51	25	1	1	2	1	1	3	0	0	0	38,55	36,1
Altzo	309	300	127	146	37	42	30	2	3	2	1	1	2	1	0	0	31,25	32,33
Amasa-Villabona	4394	4447	890	1421	717	564	589	282	383	170	258	78	63	80	6	26	34,57	36,52
Amezketa	732	757	178	351	115	107	52	5	4	12	18	1	6	9	2	0	47,02	34,08
Anoeta	1500	1392	382	520	240	181	247	78	126	55	76	25	7	15	1	3	29,38	31,82
Asteasu	1118	1101	275	426	147	139	127	28	37	22	25	7	11	11	1	5	42,84	40,05
Baliarrain	96	98	41	57	15	7	5	1	1	0	0	0	0	0	0	0	35,42	31,63
Belauntza	201	216	46	85	35	25	15	6	5	2	3	2	2	1	0	1	44,72	43,52
Berastegi	846	832	227	326	155	141	73	10	24	12	10	3	3	5	0	0	40,17	36,66
Berrobi	447	451	116	176	46	35	63	13	17	10	23	4	2	4	0	1	42,02	42,35
Bidania-Goiatz	395	400	119	156	54	57	35	3	4	8	13	2	2	3	0	0	42,49	40,5
Elduain	184	179	46	73	38	31	15	0	3	1	1	0	1	1	0	0	41,67	36,31
Gaztelu	123	136	30	69	25	18	23	0	3	2	3	0	2	1	0	0	29,17	30,88
Hernialde	260	279	55	85	50	39	30	1	4	3	10	5	2	3	0	0	42,64	45,16
Ibarra	3292	3354	669	1080	524	399	527	225	343	94	174	40	37	67	2	5	33,25	36,46
Ikaztegieta	376	368	111	149	76	70	53	9	18	5	7	3	1	7	0	1	28,26	29,89
Irura	1174	1157	249	399	227	153	189	47	82	32	64	26	12	14	5	4	31,71	36,56
Larraul	178	175	50	72	17	18	28	2	7	1	0	1	0	3	1	0	40,91	41,71
Leaburu-Txarama	267	293	82	151	48	48	20	0	0	4	6	0	2	0	0	0	39,16	27,3
Lizartza	456	476	215	282	51	47	24	0	1	1	12	1	0	4	0	0	32,66	26,47
Orendain	141	142	61	70	28	30	15	1	0	0	2	0	0	0	0	0	25,53	26,06
Orexa	92	92	72	80	1	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	14,61	9,78
Tolosa	14918	14488	2596	4052	3157	2819	2480	752	1259	538	769	218	188	211	15	58	31,81	34,44
Zizurkil	2281	2204	530	728	320	268	308	166	198	85	126	33	20	19	7	9	33,35	36,48
TOLOSALDEAN	36171	35805	7778	11959	6595	5649	5178	1676	2600	1092	1662	470	380	477	40	117		

Iritziak

ETA HEMEN JARRAITZEN DUGU, LOKATZA ZAPALTZEN

AMALUR MENDIZABAL
AMAIUR-EKO SENATARIA

ATARIA-k eskatutako hauteskunde ondorengo balorazioari gogoz ekin diot, autoan Madrilerako bidean noala, nahiz jakin badakidan ez naizela honetan aditua. Ez naiz soziologoa, ez eta analista, are gehiago, nire burua ez dut politikaritzat jotzen (azken lau urteak horretan eman baditut ere). Horregatik jarraian esandakoa, politika izugarri gustatzen zaion emakume, ama langile eta bizilagunaren hausnarketak dira. Gaur betiko tabernan banengo, kafe-lagunekin komentatuko nukeena.

Hauteskunde hauetan oso barneratua izan dugu,aukeran zegoen menuak urdina, gorria, morea edo laranja behar zuela. Ez dugu asmatu, ez dugu behar bezala aditzera eman, gure berezitasuna, gure izana, gure interesak Madrilen defendatzeak duen garrantzia. Izan ere guri ondo dagokigun menua gure beharrizanei erantzuten diena da eta hori ez da izaten normalean Madrilen eskaintzen digutena; plater goxoenak etxean jartzen dizkigutenak izaten dira, ezagutzen digutenek, gure tamainara prestatzen digutena. Kanpoan gaudenean faltan botatzen duguna etxean egindakoa izaten den bezala, Madriletik agintzen digutenean, erabakiak etxean hartzea desiratuko dugu.

Eta erabakiak etorriko dira, legealdi honetan aldaketa handiak aurreikusten dira, gai puntualetarako aliantza ezberdinekin seguruena. Edozein kasutan, han gure ahotsa edukitzea garrantzitsua zen eta onartu behar, gure ahotsak nahi baino gutxiago izango direla. Baina horrelakoetan lehen ere egonak gara eta moldatuko gara, bizilagunak gure izenean hitz egin beharrean gure ahotsa han entzun dadin. Pablo Gorostiagak kanpainan esaten zigun bezala: «Urte asko dira lokatza zapaltzen, bizitzan zikindu gabe konpondu ezin diren gauzak daudelako. Urteetan zehar, jende askok, pausu bat aurrera ematea erabaki du; konpromisoarekin urrutira iritsi daitekeela adieraziz. Bidean, topo egin dugu. Elkarrekin barre egin dugu, negar egin dugu, borrokatu dugu, erori egin gara eta nola ez, zutitu egin gara. Eta hemen jarraitzen dugu. Lokatza zapaltzen. Nik argi ikusten dut».

ESZENATOKI ANITZA, ERRONKA INTERESGARRIA

JOKIN BILDARRATZ
EAJ-KO SENATARIA

Inoiz ezagutu ez den moduko egoera berria geratu da Estatuan Gorte Nagusietarako hauteskunde hauen ostean. Lehen aldiz, lau alderdi nagusi izango dira Kongresuan eta elkarrekin konpondu beharra izango dute gobernu egonkor bat lortzeko, lortu dituzten eserlekuek ez dietelako ematen gehiengo nahikoa alderdi bakar bati ere ez; ezta bloke bakar bati ere.

Euskadin, Estatuko komunikabideek alderdi politikoei emandako tratu desorekatuak eragina izan du emaitzetan, aurreikusten zen bezala, abertzaleen kalterako. Agian, Podemosek izan duen sarrera indartsua ez zuen inork aurreikusten, Erkidegoan,Tolosan gertatu boto gehien lortuz. EAJk ondo eutsi dio, bost diputatutik seira igoz, baina EH Bilduk seitik lau galdu ditu (gehi Nafarroan zutena). Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da hauteskunde bakoitzak klabe desberdinak dituela, eta orokorretan Estatukoek boto asko metatu ohi dute beti: bai presidentea aukeratzeko hauteskundeak bezala hartu ohi direlako, bai telebisten aniztasun gabeko lanagatik. Irakurketak, beraz, ez dira nahastu behar.

Kongresuan, beraz, zatiketa antzematen da, bi bloke argitan banatuta geratzen delako: PP eta Ciudadanos, alde batetik, eta PSOE eta Podemos, bestetik. Ez da ahaztu behar, gainera, Senatuaren egoera; han Alderdi Popularrak gehiengo nagusia mantenduko duelako. Egoera nahasia erakusten dute datuek, baina hori baino, aniztasuna eta parte hartzea lantzeko aukera moduan ikusi beharko litzateke. Euskadin ohituta gaude egoera horretara, eta Estatuan ere gauzak lasaituko dira.

Deigarria izan da, baita ere, identitate propioa duten lurraldeetan Podemosek izan duen harrera ona. Euskadin bezala, Katalunian ere Iglesiasek zuzentzen duen alderdiak irabazi du, beste motibo batzuen artean, erabakitze eskubidearen alde erakutsi duen jarreraz baliatuta, nahiz eta bere parametroak Espainia barruan jartzen dituen. Kontuan hartzeko modukoa da, jakina, batez ere kontuan hartuz orain arte oso bestelako jarrera erakutsi duten PPk eta PSOEk gehien sufritu duten lurraldeak izan direla.

Interesgarriak izango dira aurretik ditugun hilabeteak. Eszenatoki berria zabaldu da eta aktore berriek erantzun egokia eman beharko diote inoiz ezagutu ez den moduko egoera zail baina aukeraz betetako honi. Politika egiteko beste modu bati ekin beharko diote denek hemendik sei hilabetera beste hauteskunde batzuetara deitu beharra izan nahi ez badute.

Olatz Iriarte izango da Baliarraingo alkate berria

Kontaketa bukatu ondoren Dorronsoro eta Iriarte bozkalekuan. JON MIRANDA

Udal hauteskundeetan parte hartu zuten %76k babestu zuen 'Herritarrak' izeneko zerrenda

JON MIRANDA **BALIARRAIN**

«Asko eskertzen dugu herritarrek eman diguten babesa». Olatz Iriarte, Herritarrak zerrendako buruak esandako hitzak dira, bozkalekua itxi ondoren. 98 lagunek zuten igandean botoa emateko eskubidea udal hauteskundeetan eta 75 gerturatu ziren udaletxean kokatutako bozkalekura. «Aurreko urteetan baino jende gehiago gerturatu da eta hori eskertzekoa da», nabarmendu zuen Martzelino Dorronsoro orain arteko Baliarraingo alkateak.

20 urte eman ditu udaletxen Dorronsorok, baina azkeneko sei hilabeteak egin zaizkio luzeenak: «Tentsio horrekin gaizki pasa dut, tristea izango litzateke kanpoko batzorde kudeatzaile baten esku uztea». Horregatik eskertu du udal talde berriak egin duen ahalegina, «pausoa eman dute eta hartu duten konpromisoa babestu dute gaur baliarraindarrek».

Olatz Iriarte, Ane Garmendia, Luis Lopez, Mikel Telleria eta Jokin Garmendiak osatuko dute udalbatza berria. Udal hauteskundeak ospatu eta 15 egunetara egin ohi da kargu hartzeko batzarra udaletxean, «jai egunak tarteko direla, ez dakigu zehatz noiz ospatuko dugun, baina urtarrila hasieran izango dela pentsatzen dugu», dio Dorronsorok.

Hiruerrieta udalerri gisa 1988an desegin zen eta ordudanik da Baliarrain burujabe. Hala ere, Ikaztegieta eta Orendaindik banandu zenean ez zuten bertatik aginte makilik ekarri. «Ez da inon azaldu eta falta dugu. Ezingo diot makila Olatzi eman, erreleboa egiteko».

Udal talde berria lanerako prest

Tolosaldeko gainerako herrietan ez bezala hiru hautetsontzi izan ziren atzo Baliarrainen. Espainiako kongresurako eta senaturako hauteskundeekin batera, udal hauteskundeak izan dituzte bertan. Maiatzaren 24ean zerrendarik ez zen aurkeztu herrian eta sei hilabete hauetan herritarren arteko mugimenduak izan dira. *Baliarrain bidegurutzean, bizi ala hil herri bezala* izenarekin prozesua abiatu zuten azaroa hasieran udal hauteskundeetarako zerrenda osatzeko helburuarekin. Sei laguneko taldea agertu da prest udalean ardurak hartzeko.

Olatz Iriarte da Herritarrak hautagaitzako zerrendaburua eta alkate lanak egingo dituena aurrerantzean. «Familia, lanagatik eta daramagun bizimoduagatik ez genuen geure burua udaletxean ikusten, baina bestalde, pausoa eman behar genuela ikusi genuen».

Udal talde gaztea da, oro har, urtarriletik aurrera lanean ariko dena. «Taldean badugu zinegotzi bezala esperientzia duen lagun bat eta seguru gaude Martzelinok ere lagunduko digula», dio Iriartek. Aurpegia berak emango duen arren, erabakiak taldean hartzeko borondatea adierazi du.

Herritarrak taldeak70 baliarraindarren babesa du lanerako. Bostek zurian eman dute botoa eta 23 geratu dira etxean.

Villabona-Aiztondo

Ilunben gozatuta borobildu du txapelketa Iguaranek

Alaia Martinekin buruz burukoa jokatu ondoren, Beñat Gaztelumendi da txapeldun berria

JON MIRANDA AMASA-VILLABONA

«Oso pozik, pribilegiatuta sentitu naiz. Aste osoa emozionatuta pasa dut. Ilusio handiarekin nentorren eta hasiera batean oholtzan urduri egon arren, pozik nago gai izan naizelako plazan egon eta publikoaz disfrutatzeko». Larunbatean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala bukatu eta berehala Oihana Iguaranek Tolosaldeko Atariari egindako hitzak dira.

7.200 entzuleren aurrean kantatu zuen amasarrak eta berari egokitu zitzaion lanean hastea, zozketan lehenengo tokia egokitu baizitzaion kanturako: «Inpresioa egin dit lehena ni izango nintzela jakiteak, baina uste dut ez zaiola zozketa bati eragiten utzi behar. Ahalik eta ondoen egitera nentorren edozein postutan kantatzea tokatuta ere».

Lehenego ariketa puntuagarrian plazari neurri hartu ondoren, «zortziko txikian hasi naiz saioan zentratzen» aitortu zuen Iguaranek. Iñaki Apalategirekin egokitu zitzaion ariketa horretan. Txiste afari batean jarri zituen gai jartzaileak. Iñaki edozein txiste txar entzunda barrez lehertzen zen eta Oihanari ez zitzaion irribarrerik ateratzen. Lehen bertsoan honako kantatu zuen Iguaranek: «Algaraka ez det nahi / galdu nik indarra / nik barrura begira egin det parra» eta Apalategik erantzun: «Denek bezala parre / egin zazu zuk´e/ edo bestela zuri / egingo dizute». Gogor erantzun zion amasarrak: «Zuri egin dizute / ja parre dexentea / parrez lehertzen ari da / tipo enklenkea / nik nahio det umore / inteligentea». Ez zitzaion Iguarani justifikatzeko pertsonaiarik egokiena tokatu ariketa honetan, baina «Apalategik emandako pieza batzuk osatu ahal izan dut saioa eta erantzuten eroso sentitu naiz. Hor hasi naiz sumatzen publikoak erantzuten zuela eta polita izan da».

Bost ariketa puntuagarri osatu behar izan zituzten bertsolariek larunbatean eta hain zuzen, Iguaranen lan puntuatuenetako bat zortziko txikia izan zen, kartzelarekin batera. «Kalean pasatzen ikusi duzu eskuetan opari bat daramala. Irribarrez doa» gaia jarri zieten zortzi bertsolariei bakarka aritzeko. Gure eskualdeko bertsolariak argi izan zuen hasieratik zein bide hartu: «Opari hitza entzunda banekien gehienak gabonetara joko genuela eta uko egin nahi nion bide horri. Historia bat kontatzen saiatu nahi nuen». Adarrak jartzen dizkion bikoteari ezkontza eskatzera doan lagunari kantatu zion Iguaranek eta bigarren bertsoan aitortu: «Aitorrengana joan nahi nuke / eta egiaz erditu / hau dena esan nahi nion baino / gero enaiz atrebitu». Eta hirugarrenean babesa eskaini dio lagunari: «Susto galanta hartu behar du / eta atzetik zenbat malko / nere sorbalda prest izango det / bueltan datorrenerako».

Kartzelako ariketan Iguaran izan zen lehena kantatzen. Argazkian, bertsoa pentsatzen. JON MIRANDA

Lau ordu «eskaparatean» pasa eta gero nekatuta baina pozik zegoen amasarra: «Orain, hainbeste babestu nauten horiekin ospatu nahi dut eta hemendik aurrera sumatu ditudan zailtasun guztiak findu eta hobetzea da nire helburua». Bihar, Ataria irratia-n, 20:00etatik aurrera patxada handiagoz kontatuko ditu Oihana Iguaranek larunbateko finalean bizi izandakoak.

Final lehiatua Ilunben

Beñat Gaztelumendik jantzi zuen larunbatean txapela, Alaia Martinekin buruz burukoa jokatu ondoren. Alde txikia egon zen oiartzuarraren eta Agin Laburuen artean. Kartzelako ariketa iritsi arte, aurretik baitzihoan astigarragarra. Bakarkakoan hartu zion aurre Martinek eta buruz buruko orekatuan jardun zuen Gaztelumendirekin.

Aurretik egindako saio erregularrak emandako puntuak batuta, añorgakoak jantzi zuen txapela.

GBT15

SAILKAPENA

1. Beñat Gaztelumendi	1.012,0
2. Alaia Martin	999,0
3. Agin Laburu	614,5
4. Iñaki Apalategi	603,5
5. Unai Agirre	595,5
6. Oihana Iguaran	594,0
7. Jon Maia	586,0
8. Arkaitz Oiartzabal *Xamoa*	571,5

Ilunbeko harmailetatik

ASPERDURATIK

JEXUX MURUA
BERTSOZALEA

Bertsolari Txapelketako finalak, niretzat, bertsolarien arteko lehia baina askoz gehiago dira: sortze-lehia dago ardatzean, hori ez dut ahazten, eta bertsolarien ahaleginari zor zaio erakartasuna, baina beraiei ere entzun diegu kantatzen txapelketak erreminta direla eta bertsolaritza helburu, aurten eta 1986an. Gustuko dut espazio berean adin, sexu, ideia, ideologia, gizarte estatus desberdineko jendea espazio bera eta zaletasun bera partekatzen sentitzea; aldamenean daukadanarekin diferentziak izanagatik momentu hori berarekin batera bizi eta gozatzea. Bai! Gustukoa dut, aldarrikapen handietatik urrun, elkargune xume hau eraikitzeko etengabeko ahaleginean ari direnen artean egotea, eta eragile sentitzea. Bizitu dudalako diot: espazio hauek behar ditugu eta hauek eraiki nahiak mugiarazten du Bertsozale Elkartea, bertsolaritzatik, euskaratik eta euskaraz. Hau ere bertsolariek ere sarri esana eta bere egina hau antolatzen orduak eta orduak pasatzen dituztenek, borondatez askok eta askok.

Gogoan dudanez gero, baina, festak zapore garratzarekin amaitzeko arriskua izaten du. Bertsolariak beren lanak amaituta, leher eginak, hustuta eta epaia entzun osteko erlaxatze trantzean, sarien, eskertzen eta agurren txanda dator. Bertsolariei beren ahalegina eskertzeko une hunkigarria, emozioz betea eta gozagarria behar lukeena, sarreran utzi beharko genukeen eguneroko zatiketa, desadostasuna, salaketa eta auskalo zer gehiago eszenifikatzeko unea bilakatzen zaigu, gu bezalaxe finala bizitzera etorri diren batzuk hala erabaki dutelako: Txapelketaren antolaketan lankide izan dugu erakunde bateko ordezkari bat igo orduko: txistu!! Giro narrastua, zaputzaldiak, antolatzaileon inpotentzia eta bertsolarien, barka nazatela, tonto-aurpegia. Geure buruari harrika ari gara etengabe.

Bat nator zer berrikusi eta berrikasi dugula diotenekin. Euskararen herriaren eta euskalgintzaren etorkizunak politika eraginkorrak behar beharrezkoak dituela diotenekin, nahitaezkoa duela partekatzen ditugun helburuak garatzeko zoru komuna eraikitzea eta estrategiak adostea diotenekin. Beharrezkoa zait, zer edo zertan bat gatozela sentitzea. Aspertua nago, urtez urte, eraikitzen saiatzen garen espazio apurrak zapuztea beste asmorik gabe dabiltzan horiekin, ez nazatela barka, alegia, bere burua besterik ikusten ez duten txistu-jolekin eta, dauden botere tokitik, lau xoxagatik, berak egiteko gauza ez direna Bertsozale Elkarteak egin dezan amenazuka ari direnekin. Lehen ezin nuen esan eta orain ez dakit, baina esana geratzen da. Asperduratik.

ELECTRICIDAD ELUSTONDO
- Argiztapena
- Inst. Elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika anbientalarentzat instalazioak, etxebizitza, denda..

Iurre Auzoa, 4 • **TOLOSA** • Tel.: **943 67 23 00**
Nafarroa etorb, 13 • Tel.: **943 88 95 71** • **BEASAIN**

Gabonetako Azoka Berezia, arrakastatsua

Azokako argazki galeria ikusgai dago 'ataria.info'-n . M. I.

Beasaingo Iñaki Zubeldiak irabazi zuen 23. Odolki Lehiaketa

MIKEL IRAOLA TOLOSA

Eguraldiaren urteroko galdera ikurraz gain, erronka berriak zituen aurtengo Gabonetako Azoka Bereziak, lekualdaketa tarteko. Biak ala biak, nota onarekin gainditu dira.

Izotz pistak Triangulotik Alondegira mugitu zituen postu ugari, baina Nerea Letamendia zinegotziaren esanetan, «argi geratu da azokak egiteko leku egokia ere badela Alondegia». Abereek sortu zuten ikusmin handiena, bereziki etxeko txikienen artean. Asko izan ziren emozio biziz plazari astoaren gainean buelta eman zioten haurrak.

Giro ona gainerako kaleetara hedatu zen gero, Bonberenea Txaranga eta dultzaineroen eskutik.

Bestalde, Gabonetako ohiturari jarraiki, Roberto Ruiz sukaldariak egindako konpota banatu zien udalak azokan lanean izan ziren baserritar eta gainerako artisauei. «Gogo handiz itxaroten ari ziren», azaldu zuen Olatz Peon alkateak. Ondoren, herritarrei eskaini zieten.

Odolkirik onena, beasaindarra

Iaz bigarren saria irabazi zuen Iñaki Zubeldia beasaindarrak Tolosako 22. Odolki Lehiaketan. Aurten, berriz, txapela eskuratu du. Juani Urretabizkaiak jaso zuen bere izenean txapeldunaren garaikurra eta 150 euroko ordain-saria.

Pozik zen Urretabizkaia. «Bertako produktua aukeratzea eta bakoitzari neurria» hartzean dagoela gakoa azaldu zuen irabazleak.

Aurtengoan, «ezberdintasun ugari» egon direla azpimarratu zuten epaimahaikideek. «Batzuk esne-gaina zuten; bizpahiruk, berriz, pikante gehiegi. Hasieratik argi nuen zein odolkik irabaziko zuen», azaldu zuen Astelena jatetxeko Peio Doyharzabal sukaldari eta epaimahaiko kideak.

Bigarren saria Tolosan geratu zen. Muñagorri Harategiarentzat izan zen. Hamar parte hartzaile izan ziren.

Irudia Bidania-Goiatz

Juana Egigurenek 100 urte

Larunbatean 100 urte bete zituen *Arretxe* baserrian jaio eta *Arraten* bizi den bidaniarrak. Udal ordezkarien bisita jaso zuen goizean, eta ondoren senideekin bazkari bat eginez ospatu zuen mendeurrena. ATARIA

Irudia Zizurkil

Ipuin onenek jaso dute saria

Teodoro Hernandorenaren omenezko ipuin lehiaketako sariak banatu zituzten ostiralean Zizurkilen, bere sorterrian. 14. edizioa izan da aurtengoa. Saridun guztien zerrenda *ataria.info*-n dago ikusgai . J.M.

Irudia Tolosa

Bonberenea, adinez nagusi

Abenduaren 23an beteko ditu 18 urte Bonbereneak. Urteurren hori larunbatean ospatu zuten. Goizean zehar txaranga erraldoia ibili zen Tolosako kaleetan zehar, eta ondoren, bazkari erraldoia egin zuten bertaratutako guztientzat. Asteazkenean izango da Okupazio Eguna, eta afalostean su artifizialak jautriko dituzte . ATARIA

Irudia Abaltzisketa

San Tomaseko Azoka ez galtzeko

Santo Tomas eguneko azoka Abaltzisketako Guraso taldeak antolatzen zuen orain arte. Aurten, ordea, ez dute aurrera egin eta ohitura galdu ez zedin, eskolako haurrek euren postutxoak jarri zituzten larunbatean. Orain arte egindako eskulanak jarri zituzten ikusgai; pintxo eta postreak dastatzeko aukera ere izan zen. M.I.

Emaitzak

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA
14. jardunaldia
Lauburu Ibarra-Sala Quinto 3-3

Sailkapena
1. Zierbena 32p
2. Ebrosala 29p
3. Pinseque 28p
6. **Lauburu** 22p
12. Aurrera Vitoria 17p
16. Sala Cadrete 5p

Hurrengo jardunaldia
Aurrera Vitoria-**Lauburu**

HIRUGARREN MAILA
11. jardunaldia
Egintza-Soloarte 4-4
Elorrioko-**Laskorain** 3-4

Sailkapena
1. Goierri 25p
2. **Laskorain** 22p
3. Presion Break 22p
8. Legorreta 15p
14. **Egintza** 4p

Hurrengo jardunaldia
Goierri-**Egintza**
Laskorain-Legorreta

ESKUBALOIA

LEHEN MAILA, C TALDEA
13. jardunaldia
Romo-**Tolosa** 20-28

Sailkapena
1. **Tolosa Eskubaloia** 23p
2. Uharte 22p
3. Trapagaran 21p
7. Beti Onak 13p
16. Pulpo 0p

Hurrengo jardunaldia
Tolosa Eskubaloia-Beti Onak

FUTBOLA

GIZONEZKOEN OHOREZKO ERREGIONALA
15. jardunaldia
Tolosa CF-Zarautz 1-0

Sailkapena
1. **Tolosa CF** 35p
2. Anaitasuna 30p
3. Mutriku 26p
7. Zarautz 22p
18. Getariako Keta 10p

Hurrengo jardunaldia
Oiartzun-**Tolosa CF**

ERREGIONAL PREFERENTEA
2. multzoa / 14. jardunaldia
Urkomendi-**Tolosa CF** 2-2

Sailkapena
1. Amaikak Bat 35p
2. Mondragon 30p
3. Urola 29p
13. **Tolosa CF** 11p
16. Antzuola 7p

Hurrengo jardunaldia
Tolosa CF-Antzuola

1. ERREGIONALA
5. multzoa / 14. jardunaldia
Intxurre-Ordizia 2-0
Danena-Billabona 0-2

Sailkapena
1. **Intxurre** 27p
2. Idiazabal 26p
3. Ordizia 23p
4. **Billabona** 21p
6. **Danena** 9p
7. Urola 4p

SASKIBALOIA

EBA LIGA 8. jardunaldia

Easo-**TAKE Tolosa** 72-49

Sailkapena
1. Pielagos 8-1
2. Cantabria 7-2
3. Santurtzi 7-2
4. Easo 7-2
5. Ardoi 7-2
6. La Gallofa 5-4
7. **TAKE Tolosa** 4-5

Hurrengo jardunaldia
TAKE-Zarautz

Herri kirolez gozatzeko moduko asteburua



Euskal Herriko Txinga Eroate Txapelketan, Santa Sousa nafarra. A. IMAZ

Iban Ugartemendia hernialdearra bigarren Euskal Herriko txapelketan

ASIER IMAZ

Batetik bestera joan eta jende bera. Asteburu berezia izan da pasatakoa. Tolosaldea herri kirolen hiriburua izan da, eta kirolari nahiz ikusleen erantzuna handia izan da.

Asteasun, igandean. Ibar Ugartemenedia harri-jasotzaileak hitzordua zuen: Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa. Aimar Irigoien, lesioa medio, azken unean joan ezinik gelditu zen. Baina hala eta guztiz ere, Ugartemendiarentzat ez zen erraza, iazko txapelduna Asteasun baitzen. Eta pronostikoak bete egin ziren, Jokin Eizmendiren garaipenarekin. Txinga eroate txapelketak ere jokatu ziren Usarrabi pilotalekuan.

Egun berean, Tolosan, aizkora apustua zegoen. Gogoangarria izan zen Larretxearen garaipena. Arria V.a ere fin ibili zen, baina betekadari buelta hobekien eman zionak irabazi zuen desafioa.

Larunbatean, Leaburuko Diva Pentsuaken pabilioian, harrijasotzaileak eta aizkolariak izan ziren.

Larretxea eta Arria V.a ikustera 1.300 ikusle joan ziren zezen plazara. A. IMAZ

EMAITZAK

Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa, Asteasun
1. Jokin Eizmendi 7.200 kilo
2. **Iban Ugartemendia** 4.975 kilo
3. Aimar Galarraga 3.650 kilo

Euskal Herriko Txinga Eroate Txapelketa, Asteasun
1. Santa Sousa 35 plaza
2. Garazi Arruti 31 plaza
3. Laura Perez 14 plaza

1. Kerman Perez de Heredia 36 plaza
2. Ousmane Drame 34 plaza
3. Oskar Perez 15 plaza
4. A. Iruretagoiena 10 plaza
5. Igor Landa 8 plaza

Aizkora apustua, Tolosako Zezen plazan
1. Donato Larretxea 47:18''
2. X. Orbegozo 'Arria V' 48:14''

Urrezko Harri-jasotzaileen Txapelketa, Leaburuko Diva pabiloian
1. Izeta II 65 jasoaldi
2. 'Urra' 63 jasoaldi
3. Telleria IV 63 jasoaldi

Diva Pentsuak Saria, Leaburuko Diva Pentsuak pabiloian
1. Joxetxo Urrutia
2. Telleria II
3. Jagoba Otaegi
4. Izeta I

Aizkora desafioa, enbor bakarra nork lehenago ebaki, Leaburuko Diva pabiloian
1. Julian Larrea
2. Etxeberria
3. **Unai Zabala**
4. **Joakin Garmendia**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

Ile apaindegia: Tolosako ile apaindegi baterako ile apaintzaile euskalduna behar da. Interesa dutenek, *oficialpeluqueriatolosa@gmail.com* helbide elektronikora bidali dezatela emaila.

Sukaldari eta zerbitzariak: Sagardotegi baterako sukaldari eta zerbitzariak behar dira, asteburuetan lana egiteko. Telefono zenbakia: 687 41 53 15.

Larunbatean, Diva Pentsuaken pabilioian, herri kirol jaialdia izan zen. A. IMAZ

Harmailetatik... **Jexux Murua**

Pilotari osoen garaia

Eskuzko pilota jokoak izugarrizko aldaketak izan ditu azken urteotan. Aldaketa hau piloten aldaketak, materialak, eta prestaketa fisikoak eragin dutela diote askok. Profesionalizazioa ere aipatu behar da: orain ez hainbeste urte, pilotari gehienek pilota eguneroko lanaren osagarri izango zuten. Gaur, berriz, ez dakit egongo den pilota beste lanbideren batekin konpajinatzen duenik, ikasketekin izatekotan ere. Erabateko dedikazio eskatzen zaie eta eskaintzen diote, profesionalagoak dira - besterik da zer nolako tratua ematen zaien trukean, baina erpin asko dituen kontua da hau - , eta ondorioa joko biziagoa eta ikusgarriagoa egiten dute. Gaur egun, bigarren mailakotzat ditugun pilotariek ere izugarrizko maila erakusten digute.

Teknikoa eta taktikoa izan da beste aldaketa ikusgarria. Gaur ezinezkoa dirudi atzelari batek buruz burukoa irabaztea; ezinezkoa da aire jokoa eta zeharkako jokoa menderatu gabe garaipenik lortzea. Akabo boteko jokoa, bederatzira pilotakada eta ñakua txokora edo zabalera! Dagoeneko, sakeari ere ez zaio uzten botea egiten. Honek guztiak aurrelariak bilakatu ditu protagonista, baita bi-bitako partiduetan ere, eta nahikoa itzalean utzi ditu atzelariak bere bizkartzain egiteko neketsuan. Baina hauen artean ere ari dira sumatzen aldaketak, gero eta nabarmenago azaleratzen direnak: badirudi atzelari arinena, aurreratuta kokatzen direnena eta aire jokoa arrotza ez zaienena dela etorkizuna. Urrutikoetxearen «esperimentuak» azkar dezake transformazioa. Pilotari osoaren garaiak datoz.

Aulkitik...

Beste pauso bat

Oihana Ugartemendia
Tolosa CF

Igoera faseari ekiterako, helburu eta motibazio berriak jarriak genituen aurreko asteetan. Ordizian hasiera ona eman ostean, Intxaurdiren aurkako partida besterik ez geneukan buruan; gerokoak geroko. Imanolek esan bezala, fase honetan partida bakoitza da garrantzitsua, eta Gabonetako atsedenaldira 6 punturekin iristea zen erronka.

Larunbata, 15:30ak eta partida jokatzeko eguraldi paregabea. Giro ona nabari zen partida aurretik aldageletan, musikarekin, jendea gogotsu zegoen arratsalde polit bat biribiltzeko. Ohiko beroketak burutu, azken aginduak entzun eta denok zelaira irten ginen.

Lehen zatiari jokoa kontrolatuz ekin genion, eta zenbait iritsieraren ostean lehen gola sartu zuen Joanak. Bide beretik jarraitu genuen, aparteko jokorik erakutsi gabe baina aldi berean estualdi larregirik gabe, eta aukera zenbaiten ostean, area ertzetik 'Beldak' gol bikaina sartu zuen. Bi eta hutsekoarekin, beraz, joan ginen aldageletara, eta bigarren zatian gauzak ez ziren asko aldatu. Pixka bat erlaxatzearen ondorioz, donostiarrak gehiago hurreratu ziren gure area ingurura, aukeraren bat sortuz, baina partida erabat ixteko, berriro areaz kanpoko jaurtiketa eder batean iritsi zen hirugarrena, kasu honetan Ireneren oinetatik.

Partida amaieran, animatzera etorri ziren beste taldeetako neskekin zerbait janez ospatu genuen garaipena, eta hasierako helburua beteta goaz Gabonetara, bide luzean beste pauso txiki bat emanda. Nola ez, berririk onena, urtebeteren ostean Mirari deialdian izan genuela, momentu txarrak pasa ostean, onez gozatzeko garaia ere heltzen baita! Aupa neskak!!

Irabaziz jarraitzen du Artolak, binakakoan

Jokin Altunak eta David Merinok berriro galdu dute

ASIER IMAZ

Binakako txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zen asteburuan. Bigarrengoan bezala, Artolak irabazi egin zuen bere partida, eta Altuna III.ak galdu. Sailkapen nagusian hala eta guztiz ere, biek lehen lau postuetan jarraitzen dute.

Eskualdeko txapelketei dagokienez, IV. Antton Pebeten Oroimenezko Esku Pilota Txapelketan finalerdiak erabakirik gelditu dira. Final laurdenetako azken partidak ostiralean eta igandean jokatu ziren. Jon Erasun zizurkildarrak galdu egin zuen Larrañagarekin, eta txapelketatik at gelditzen da, Urbieta asteasuarra bezala. Finalerdiak larunbatean eta igandean jokatuko dira.

EMAITZAK

BINAKAKO TXAPELKETA
Iruña

Olaizola II-Urrutikoetxea	22
Altuna III- Merino II	13

Oiartzun

Berasaluze II-Beroiz	14
Artola-Albisu	22

Sailkapena

1. Irujo-Rezusta	3-0
2. **Artola-**Albisu	3-0
3. Olaizola II-Urrutikoetxea	2-1
4. **Altuna III-** Merino II	1-2

EUSKAL HERRIKO NAZIO MAILAKO TXAPELKETA
Amezketan, final laurdenak

Aurrera Saiaz-Irurtzun	2-1

IV. ANTTON PEBETEN OROIMENEZKO TXAPELKETA
Villabona, final laurdenak

Kadeteak

Zabala-Zubeldia	22
Osa-Sein	8
Iriarte-Ibarloza	22
Orbegozo-Oliden	8

Jubenilak

P. Etxeberria-Aranguren	22
Garcia-Cordon	17
Exposito-Aizpuru	15
Zubizarreta-Ezkiroz	22

Nagusiak

Larrañaga-Erasun	6
Urretabizkaia-Murgiondo	22
Urbieta-Urizar	13
Azpiri-Castillo	22

Irudia Altzo

Altzoko frontenis txapelketako lehen txapeldunak

Altzoko Otsabiope Gazte Asanbladak antolatuta, herriko I. Frontenis Txapelketaren finala jokatu zen igandean. Xabier Berasategi eta Odei Arregi tolosarrek irabazi ziete 30-19 Amezketako Erik Sagastume eta Xabier Goikoetxeari. Irabazleei, herriko produktuekin osatutako saski bana eman zitzaien. A. IMAZ

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK
ataria@ataria.info
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte.
Ostegunetan 16:00ak arte.

- I. URTEURRENA -

Aitziber Sarasola Jaka

Argi bat itzali da lurrean,
beste bat piztu da goialdean,
Aitziber, beti izango zaitugu
gure bihotzean.

Etxekoak

TOLOSA, 2015eko abenduaren 21ean

tolosaldeko ataria

2015-12-22
ASTEARTEA

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Eneritz Maiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa
Telefonoa: 943 65 56 95
ataria@ataria.info • www.ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.info
Bezero arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko...):
902 82 02 01

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
• **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:
galtzaundi · Txolarre · berria · Bertako Hedabideak
Tolosaldeko gizarte eragileak

Ataria-k Bai Euskarari

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hi Haiz Hi! jaialdi anitza

Jaialdian parte hartu eta bideoak egin dituzten gazteak oholtza gainera igo ziren ekitaldiaren bukaeran. I.G.L.

IMANOL GARCIA LANDA TOLOSA

Tolosako hiru ikastetxeetako ikasleek antolatutako Hi Haiz Hi! jaialdian hainbat ikuskizun izan ziren zuzenean Topic aretoaren oholtzaren gainean: musika, bertsoak, dantza eta antzerkia. Eta noski, Beldur Barik lehiaketara aurkeztutako bideoak, eskualdeko gazteek egindakoak. Hain justu, Irmo talde billabonatarrak eraman zuen lehen saria *Iraultza Morea* bideoarengatik. Bigarrena Xanet Egiguren eta Nadin Hussein bertsolarientzat izan zen. Epaimahaiak bi lanetan azaldutako mezua nabarmendu zuen saria ematerakoan. Lehen bi sailkatuek 250 euroko sari bana jaso zuten, Tolosako Udalaren eskutik. Aurkezle lanetan aritu zirenak ere beraien ikuskizuna eskaini zuten, hauteskunde kanpaina giroa jarri baitzuten, Pablo Iglesias eta Albert Riverataz mozorrotuta.

Ikusi jaialdiaren argazki galeria ataria.info/tolosa helbidean

ataria irratia 107.6 fm 105.0 fm

09:00-11:00: Pasahitza eskualdeko berriak, artearen txokoa, errezeta. Oihana Iguaran *Kale Kantoitik* eta Antton Telleriaren eskutik eguneko abestia.
11:00-12:00. Entzuteko jaioak musika saioa.
12:00-13:00. Musika
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.
20:00-20:30. Kokondo Oskar Tenaren musika saioa.

Aiztondorako frekuentzia **berria: 105.0 fm**

2 KANALA

12:30. Mugabarik. Bolovia.
13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
21:00. Platopic.
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
22:00. Oliver Magoa.
22:30. Ikasgelatik.

eguraldia

GAUR
17º 07º

BIHAR
17º 07º

farmaziak

GAUR
Ibarra
Egunekoa eta gauekoa:
Iturrioz Lete, I.
Euskal Herria, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

tolosaldeko ataria
www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm
San Esteban 20 • Tolosa
943 65 56 95
Zatoz ataria ren egoitzara zure mahai egutegiaren bila!

zorion agurrak

Urte askoan!
Ebarista Arrate
(Lizartza)
Urte askoan, atzo 85 urte.
Jarraitu bixkor-bixkor
nahi dezun arte!

napaoan
Erriberako kontserbak, Iparraldeko pateak, Bertako produktuak...
• Gabonetarako otar bereziak, loteak
• Opariak egiteko aukera zabala
PIEDAD KALEA, 6 ZUMARRAGA
telf: 638 843896
e-posta: Jgggaztelu@gmail.com

RAFA GORROTXATEGIREN ARTISAU
turroi eta erroskoak
Rafa Gorrotxategi
DENDA HAUETAN BAKARRIK :
TOLOSA: Ogi Berri / San Frantzisko Pasealekua, 29
DONOSTIA: Lukas Benta Berri Julio Caro Baroja Plaza,1